

## JOSE MANTEROLA (\*)

*Juan San Martin*

(\*) Lehen parte hau Euskaltzaindiak 1984ko apirilaren 27an Manterolaren omenez egin zuen batzarreko «Jose Manterola, egile eta eragile» zeritzan hitzaldi hartan oinarritzen da. Ikus **Euskera** agerkaria, XXIX, 1984.



32013

## AURKIBIDEA

- Sarrera hitzak .....	5
- JOSE MANTEROLA (Juan San Martin): .....	7
Gazte erromantikoa.....	7
Foru zalea .....	8
Kanta zaharren biltzailea .....	8
Euskal kulturaren suspertzailea .....	9
Euskaltzale suharra .....	11
Hilburukoa.....	12
- BILDUMA LABURRA (José Manterola): .....	15
Aurkezpena (J. S. M.).....	15
Gizon bearra ta aberats zikoitza .....	19
Abaraska ostutzallea.....	22
Itanasia.....	23
Somaketa .....	24
Aita Sebastian Mendiburu-koari.....	25
Nuestros autógrafos: Axular, Pouvreau, Oihenart, Ercilla .....	26
Curiosidades bascongadas (sobre Diccionarios).....	31
Curiosidades bascongadas (sobre terminología de Teatro) .....	34
Iparraguirre .....	40
Refranes y proverbios vascos .....	45

Dep. Leg. SS. 269-85

Lit. DANONA, S. Coop. - Polfg. Ugaldetxo - Oyarzun - 1985

## SARRERA HITZAK

Donostiako Udalak hiriko seme bat omendu nahi du, duela 126 urte Martxoaren 23 an, hain zuzen, jaio zen donostiar ospetsua.

Ez da oraindik denbora asko Euskaltzaindiak omenaldia eskaini ziola, eta beronekin bat egiten dugu, euskaltzale honen bizitza eta lana oroitu eta goraiatu nahi izan duten euskaldun guztiekin batera. Halaz guztiz, hutsune bat somatzen genuen, herriak alegia, bertako semea izanik, esker ona erakusteko eskaini behar liokeen omenaldi bero baten hutsunea. Asmo horrekin euskara Batzordea eragile delarik, ospakizun herrikoi batzu antolatu ditugu; asmo horrekin argitaratu dugu ere eskuetan duzun liburuxoa, dokumendu gisa, omenduaren bizitza eta lana ezagutzera emanaz.

Denok dakigunez, lan txalagarria burutu zuen Jose Manterolak euskal kulturaren alorrean, bere zaletasuna alor desberdinetara zabaldu zelarik: literaturara, musikara, antzerkira... Horretxek bihurtzen du euskal kulturaren alorrean ari garen guztion eredu bizia izan dadin. Euskara izan bait zuen bere bizitzako kezka eta ardura nagusia, eta antzeman ere zion Euskal Kulturaren ardatza euskarak izan behar zuela.

Aspalditxo honetan Donostiako Udala, euskararen egoeraz kezkatutik, hizkuntz normalizaziora zuzendutako lanak babestu eta lagundu ez ezen, EUSKARAZ BIZI izeneko ekintza batean sartuta dabil. Antolatu dituen ospakizun eta emanaldi hauek, hain zuzen ere, ekintza horretan sartzen dira.

Bultzatuko ahal gaitu Jose Manterolaren exenpluak bide beretik ibiltzera, euskararen egoera larriak denok kezkatuta gaduzkan une honetan; eta bereziki, premia handieneko arazoei erantzun bat eman nahiez plangintza bat eratzen eta zehazten ari diren guztiak. Badute, noski, nora begiratu eta nor jarraitu lehentasunak eta baliabideak aztertzerakoan, beti ere, protagonista nagusia eta azken helburua Herria izan behar duela gogoan dugularik.

Sarreratxo hau amaitu aurretik bihoazkio gure eskerrik beroenak Juan San Martin jaunari, berari zor bait diogu, dokumentu hau kaleratuz, Jose Manterola donostiar eta euskaltzalearen bizitzaren eta lanaren oiartzuna eta itzala gure artean zabal dadin.

*Donostiako Udala  
Euskara Batzordea  
Jesus Congil*

## JOSE MANTEROLA

Donostiar ospetsuen artean tokirik gorenetakoa merezi du Jose Manterolak, bereziki gure kulturgintzaren munduan eta euskara zuzpertzez. Horregatik, legezko zitzaion Euskaltzaindiari bere heriotzaren mendeurrenez omenalditxo hau eskaintzea.

1984ko martxoaren 23an bete ziren ehun eta hogeitamabost urte Jose Manterola Donostia hiri hontan Narrika kaleko 1ean jaio zela eta San Bizenten bataiatu. Laburra izan zen beretzat mundu hontako bizitza, baina bere iragan laburrean zenbat lan on egin zuen ez da hain erraz neurtzekoa. Denboraz izan zuela diot bizitza laburra, ez ordea ekintzaz. Bere lana ikusirik argi dago denbora labur hura ongi aprobetxatu zuela eta edonorri zaio luze; baina jakin zazute 35 urte bete gabe hil zela, 1884ko otsailaren 29an, intelektu lana hain buruz bete zuen gizona. Donostiako Santa Maria elizan egin ziren bere arimaren aldeko hiletak. Gazte joan zen, baina bere gogoa utzi zuen ondorengoan baitan, euskaldungoak irauin zezan. Eta gaur egungo euskaltzaleok ezin esan berari ezer zor ez diogunik.

### GAZTE ERROMANTIKOA.—

Manterola erromantiko giroan hasia eta hezia zen. Gaztetxotatik txertaturik zeraman gogo suharra bere herri hontako gauzen alde eta hortarako jakintza sendoz jabetzen ahalegindu zen lehenik, ondorean frutu onak eskaini ahal izateko asmoz. Bere aita, Gregorio Manterola, diputadu jenerala izan zen, jakintzaz nahiko ondo hornitutako gizona. Jose berak Bergarako Seminario hartan egin zituen batxiler ikasketak, Valladolid, Zaragoza eta Madrid-en jarraitzeko Filosofia y Letras karrera bukatu arte. Haurtzarotikakoa bai zuen literaturarako zaletasuna, eta estudioak amaitu baino lehen hasi zen Madrid-eko *El Resumen* aldizkarian idazten, gero foruzaleen *La Paz*-en eta liberalen *Aurrera* aldizkarietan gure herriaren defentsaz kolaboratzeko. Lehen liburua ere gazte-txo zela burutu zuen: Gipuzkoako gida esku-liburu bat argitaratuz 1871. urtean, artean hogetabi urte baizik ez zituela. Handik bi urte barru *Diario de San Sebastián*-en zuzendaria zen. Laster lortuko zuen Donostiako Biblioteka Munizipalaren zuzendaritza. Eta, horrez gainera, Instituto Nacional de Segunda Enseñanza-ko irakasle zen.

Erromantiko giroaren seme zela esan dugu. Oroi Iztueta eta Chahok ereindako hazia Bilintx eta Iparragirrekin loretua zela. Hortik aurrera, erromantikoen gailurrean aurkitzen direnetakoa dugu Jose Manterola eta bere ekintzarik handiena *Euskal-Erria* aldizkaria sortzea eta bere inguruan garaiko jakitun eta idazle guziak biltzean datza. Bildu ere, mugaren bi alderdietako euskaltzale eta euskalariak bildu zituen. Horrela egin zen aldizkari hura bere izenaren jabe. Eta, gure kulturgintzan ari zirenek lehen aldiz izan zuten elkarturik lana egiteko aukera. Gero etorriko ziren ikerketaz eta politikaz ikuspegi berrituagoak eskainiko zituztenak, baina uka ezinezkoa zaigu berpizkundearen hasieretan zein garrantzitsua izan zen Manterolaren lana.

### **FORU ZALEA.-**

Egia esan, ziorik ez zitzaion faltatu bere gazte denboran. Hurbildik ezagutu zuen karlisten bigarren gerratea, bertako lekukotasunik ere eman zuen kronika gisa *Diario de San Sebastián* hartan; baina egiazki bultzarazi zuena foruen galerazpena izan zen. Berez pizturik zekarren gogoari su eman bai zion 1876. urteko uztailaren 21ean Espainiako gobernuak gure foruak eragotziko zituen legea eman zuenean. Egun hortan, bere zuzendaritzapean argitaratzen zuen *Diario*-an berri ematean, orla beltzez agertu zuen, azpian honako hau iragarritz: «¡Los fueros han muerto!» «¡Vivan los Fueros!». Hori zelata, Institutoko irakasletzatik bota zuten. Baina hortik hartu zuen euskal gaietan lehen baino sutuago aritzeko indarra. Jarrera horren lehen agerpena izan bai zen *Cancionero Basco* (1977) zeritzan bildumaren publikatzea.

Entzutea dugu, eta nonbait irakurri ere bai, Manterolak, erreakzionario gisa jokatu zuela geroztik. Holakorik gertatzen baita erreakzionario hitza oker erabili nahi dutenen artean. Baina, erreakzionario izateko ez dugu uste idea atzerakoien aldekoa zenik. Cadiz-ko Konstituzioa aurre-rakoia zen oraindik feudalismopetik irten gabe zeuden herrientzat; baina, 1812an inglesen *Habeas corpus*-ean oinarriturik egin zen lege hura inork ez digu frogatu gure herri honentzat lege zaharreko foruak baino hobea zenik. Gure egunotan ere gertatzen zaigu holakorik. Baina, gauza bat da reakzioa eta oso beste bat kontraekintza. Eta, kontraekintza zen Manterolaren bidea, inposatu nahi zutenen kontra eta bere herriaren alde. Horrela agertu zuen bere gizontasuna. Garai hartan Madrideko Congreso eta Senado osatzen zuten gehienek, alderantziz, gure lege zahareri buruzko ez jakintasuna baizik ez zuten agertu. Eta, oraindik hemen gabilta orduko okerrak zuzendu ezinik.

Manterolak, bere hori kontraekintza alderik zuhurrenetik eraman zuen, bake bidez eta kulturgintzaz.

### **KANTA ZAHARREN BILTZAILE.-**

Fr.-Michel eta M. J. Sallaberryk egin zituzten kanta bildumen jarraian etorri zen Manterolaren *Cancionero basco*, kanta zahar eta aintzinako

euskal poeten lanak bilduz eta argitaratuz. Taxuz bete zuen lan hori, bere denborako poeta euskaldunenak ere gehituz. Bilintxen zenbait lan ere betiko galduko ziren berak jaso ez balitu. Aurkeztean, doinua zutenak pentagramaz jartzeaz gainera, batzutan egileen biografiak ipiniaz eta beti filologia oharrez aberastuak edo zenbait aburu erantsiz. Gazte-lerazko itzulpena ere jartzen zien eta inoiz frantsezezkoa ere bai.

Garai hartan eta aldi berean, Lapurdiko Urruña eta Saran bazen eskualzale mugimentua; bestalde, Iruñeko Asociación Euskara de Navarra hasia zen lanean eta *Cancionero Basco* baino urte bete geroago sortu zuten *Revista Euskara* (1878-1883); Araban ordea, Fermin Herrán-en inguruan ari ziren; eta, Bilbo aldean ere lo ez zegoela aitortu behar da. Hala ere, euskararentzat Manterolaren ekintza zen probetxuzkoena. R. Becerro de Bengoak hara nola agertu zuen bere iritzia, 1880. urtean, *Irurac-bat* aldizkarian: «Don José Manterola, que con una entereza y un corazón dignos de un gran éuskaro ha repartido, no sólo por los hogares del país, sino por todos los pueblos del mundo civilizado, do quier que hay bibliotecas y librerías, esos albums originales, que contienen las producciones de nuestros poetas, por él traducidas y comentadas con exquisito acierto y esmero y que llevan el sencillo título de *Cancionero Basco*. Las páginas de este libro se devoran, no se leen, por cuantos conocen la lengua de Laramendi y de Garibay, y a través de las estrofas, con la traducción a la vista, tratan de contemplar con creciente curiosidad, los que ignoran el vascuence, a los desconocidos y originales poetas de la apartada tierra. Para todos tiene, en efecto, misterioso y especial atractivo este libro».

Hemen, euskaldunak harriturik gelditu ziren euskara idatzian hainbeste lan eder ikusteaz eta gainerakoak ere euskarazko literatura errespetu gehiagoz begiratzan hasi ziren. Lastima kanta haiek eskoletan ez erakastea, lastima, benetan, euskaldunoi gure errotikako literaturaren berri haurtzarotik ez emana. Orain, ehun urte igaro ondoren gabiltza huts hori zuzendu nahian eta, zoritxarrez, ez borrokarik gabe.

## ***EUSKAL KULTURAREN SUSPERTZAILE.-***

*Cancionero Basco* hura hiru urtez bukatzean beste lan handiago bati oratu zion, bere ekintza guzietatik emankorrena sortuz 1880. urtean: *Euskal-Erria* aldizkaria.

Manterola ohartzen zen kulturgintzaz zeregin handia bete beharrean ginela. Garai hartako idazlerik gehienak aldizkariaren inguruan bildu zituen, eta hura ere ez zen mugatzen Gipuzkoan, Euskal Herriaren zazpi aldeetakoek ez ezik euskalari arrotzak ere beren lanekin parte hartu zuten. Aldizkariaren orrialdeetan orotarik bildu zuen: arkeologia eta historia ikerketetatik, ohitura eta etnografia zein ahozko literatura bilketetatik sorketazko literaturgintzara arte. Gainera, kontu handia izan zuen politika arazoekin nahastu gabe ibiltzeaz, gehiengoaz baliatzearren. Horregatik, bertan idatzi zutenetakoak ditugu, besteak beste:



Arzak, A. Arana, K. Etxegarai, Otaegi, Arrese eta Beitia, Artolatarak, Elizanburu, Iraola, S. Baroja, E. M. Azkue,... euskaraz lanak argitaratu zituztenen artean, eta erdarazkoetan: A. Trueba, Iturralde y Suit, Delmas, P. Egaña, F. Baraibar, F. Sagarminaga, Bonaparte printzea, W. Webster, Julien Vinson, A. d'Abbadie, A. Campion eta abar.

*Euskal-Erria* aldizkarian gai interesgarri guziak izan zuten lekua, Wentworth Webster-ek aitortu zuenez, gure literaturaz, musikaz, kondairaz, herri jakintzaz eta abar zerbait jakin nahi zutenentzat ezin zela artxibategi hoberik ukan *Euskal-Erria* aldizkaria baino.

Bere lan hori aurrera eroan ahal izateko, egia esan, Antoine d'Abbadie eta Achille Fouquier-ek beren agiritegi eta liburutegiak erabiltzeko ateak idekiz aukera guziak eskaini zizkioten. J. Vinson eta L. L. Bonaparte printzearengandik ere agiri eta aholku laguntzak jaso zituen. Egiazki, *RIEV* aldizkaria eta Eusko Ikaskuntzaren sorrerazko aurrerapena izan zen *Euskal-Erria* aldizkaria, euskalari guziak bilduz gure herriari buruzko lanak erarik orokorrenez ematen erakutsi zigunez.

Inguruan langile laguntzaile onak izan bazituen ere, guziak elkartzuko gidaritza erakutsi zigun. Horregatik, bere heriotza geroztik ere frutu onak ematen jarraitu zuen hazia ondo eraginik utzi zuen landarak. Gidaritza onaren ondorioa zen. Iraolak ongi esan zuen Manterolagatik, «gure gidari eta argia». Itxura batean, *Euskal-Erria* aldizkariaren jarraipenak ez zuen izan inolazko eragozpenik bere bidean ihardutzeko. Bere ordeztan, lankide izan zuen Antonio Arzak geldituko zen aldizkariaren arduradun, baina maisuaren hutsunea omenezko liburuaren sarreran agertu zuen: «Negarrak paperean arrastorik utziko balu, ez nuke tinta bearrik itz oek izkribatzeko...» esanaz hasi bai zuen eresi kutsudun hiletazko artikulu hura.

Bazen beste ekintza bat ere *Euskal-Erria* aldizkariaren babespean sortzaile izan zena. Sortzaile ez ezik antolakizunak ere bere lepotik eraman zituena: Euskarazko itz-jostaldien Batzarrea (Consistorio de los Juegos Florales) zeritzana, 1882an programatua. Egia esan, d'Abbadiek sortu zituen Euskal Jaiak (Fiestas éuskaras) antzerako zerbait zen, behar bada ez hain garrantzitsua; baina gure gizon burutsua bere eskuz behar bezala gidatu baino lehen hil zen. Honen egitekoa, literatur, musika eta pintura lehiaketetarako deiak.

Idea handiak zituen eta proiektu bat bestearen ondorean emanaz joan zen bere bizitza labur hortan. Herioa hurbil zetorkionik jakin gabe eta presaka.

Baina, otoi, eragilez gainera egile ere bazen. Aldizkariaren zenbaki guzietan anitz idatzi zuenez. Frutu onik eskaini zigun arlo hortan ere. Bere lan horietatik ezer goraiatzekotan «Apuntes necrológicos» eta «Autógrafo y noticias», «Curiosidades bascongadas» eta «Efemérides basconavarras» sailak dira gogoangarriak Euskal Herriak eman dituen era askotariko pertsonaien berriak eman bai zituen. Euskal idazleatarik toki

berezia izan zuten Axular, Mendiburu, Larramendi, Etxeberri Sarakoa, Iparragirre, Pascual Iturriaga eta beste zenbaitek. Horien bizitza eta laneri buruzko berriez gainera ikerketarik ere eskaini zigun. Adibidez, bera izan zen sor Luisa-ren *Gabon sariak* lehen lehenik Muniberena zen ustea zabaldu zuena.

## **EUSKALTZALE SUHARRA.—**

Euskara idatzian ere ez zen labur gelditu, artikulua eta saio asko idatzi zituen, beste zenbait itzulpenez gainera, horien artean Teocrito eta Anacreonte griego klasikoetatik. Euskaraz eta gaztelera, XIX. mendean lehen partetik Donostian egin izan ziren ihauterieri buruz ere idatzi zuen.

Bestalde, sorketazko literatura lanak ere egin zituen eta aipatzekoak dira poema hauek: Itanasia, Amalauduna, Aita Mendiburu, Somaketa, Munduko esamesak, Kantauria eta epika gisa, latinez titulaturaz idatzi zuen poema luzea, *Post tenebras spero lucem*.

Manterolaren beste alderdi bat, gure artean ez hain ezaguna, hizlari polemistarena da; bereziki foruen eta euskararen alde nabarmendu zen Donostiako Ateneoan. Garai hartan Joakin Jamar omen zen Ateneo hartatik igaro zen hizlari bizi, argi eta polemikoena; arrazoi bidez apenaz inork menderatzen omen zuen. Jose Goikoa buru zela mahai-inguru bat eratu omen zuten, euskara bai ala ez, eztabaidatzeko. Mahaikide ziren Jamar, Serafin Baroja, Egoskozabal eta gure Manterola. Publikoaren aurrean haizetu zuen Jamar jaunak: «¿Hasta qué punto es cierto que encierra un gran interés la conservación de la lengua éuskara? ¿Hay realmente un interés en conservarla y procede que se hagan serios esfuerzos para ese fin?». Hitzetik hortzerako ihardespak izan omen ziren Jose Manterolarenak, euskararen garrantzia agertuz eta bere berbizkundearen premia azalduz. Bere argudioak hain arrazoizkoak eta hain zorrotz esanak omen ziren, Ateneoko entzuleen aldetik inoiz ez omen zen jaso holako txalorik.

Gertakari horiek, gaurko gaiak balira bezala agertzen zaizkigu. Euskara, gure herriaren arima iduritzen zitzaion Manterolari: Hizkuntzaren heriotza eta Euskal Herriarena batean ikusten zuen. Gaur egun ere, askorentzat hala da. Gaurko zoritxarra ordea, idea hori ontzat hartzen dutenek ere, gehiengoan gaztelera mintzo direla. Ez da erraz igartzekoa euskarak zein duen bere etsairik handiena, bere kontra dagoena ala asmoz alde egonarren ez ikasi eta ez mintza, besteren arazoa balitz bezala jokatzeko duena. Baina, gaur hemen Manterolaren jokabidea interesatzen zaigu.

Manterolaren ikuspegia oso zabala izan zen, ideak argi eta garbi zituen, bere denborako beste euskaltzale batzuk bertsolaria mesprezuki erabiltzen zuten garaian, berak bertsolari saioak antolatzeari eman zion, sariak jarri ere bai, eta beretan epaimahaiko izan. Kultur maila guziak

probetxugarritzat zituen, zein *élite*arena hala populuarena, eta euskal literaturak guziak behar zituen.

Bere heriotza uste gabekoa izan zen eta laster zabaldu zen berri beltza Euskal Herriaren zazpi alderdietara, eragin handia izan zuen. Horren ohiartzuna hara nola adieraziz aditzera eman zuen Klaudio Otaegik: «Lapurditikan Ebroraño, ai! tristero dago guzia». Orduko euskaltzale eta abertzaleen bihotzak ilundu ziren, eta bere publikazioetan lankide zirenek galera haren sentipenez, bat-bateko bilduma eskaini zioten. Bilduma hartan bada eresi hunkigarririk, baita ere bere jokabide zintzoa zorrotz agertzen duenik. Horieta adibide bat Arturo Campion Euskaltzaindiaren sortzaile eta Manterola hil zen urte berean *Gramatica bascongada* publikatu zuenarena dugu. Gaur oraindik ez datorkigu hain gaizki eta merezi du hemen irakurtzea; hara zer zion:

«La manifestación más enérgica de la personalidad de un pueblo, el testimonio más elocuente de la supervivencia de una raza, el instrumento más poderoso de las reivindicaciones nacionales, es el lenguaje: un idioma es una frontera.

Al convertir José Manterola todos los rasgos de su espléndida inteligencia hacia la lengua éuskara, fue un gran patriota.

Su nombre fue limpio espejo de los buenos que defienden al país basconavarro y anatema de los villanos que sirven o ayudan a sus perseguidores, o transigen con sus enemigos. ¡Bendito sea!».

*Arturo Campión*

Gainerakoan, omenezko liburu hartan, laudoriorik ez da falta.

Gogoan hartzekoa dugu euskararen ortografia batu bat burutzeko egin zituen lanak ere. Garaiko euskal idazleak, poliki-poliki, Manterolak *Euskal Erria* aldizkariaren bidez eman zuen idazkera hartu bai zuten.

1902. urtean, Donostiko kale bati bere izena jarri zitzaion. Baina, euskaltzaleok ahantzirik ez ote dugu eduki?

## **HILBURUKOA.—**

Berak utzi zigun hilburukorik onena, euskal literaturaren zabalkundez eta indarberritzez *Cancionero basco*-z gainera, *Euskal-Erria* aldizkaria eta honen jarraipena izan ziren. Orduarte, gure intelektu gntea oso sakabanaturik ibili zen eta bere eraginezko lanetatik datorkigu bilduz eta elkarlanez aritzea, ekintza haietarako kideak ondo hezituak jarri zituenez. Aldizkariaren zuzendaritzan honako hauek izan ziren, elkarren jarraian: A. Arzak, F. López Alén eta T. Altzaga. Azkenik, bizitza labur hartan aski egin ez balu bezala, bere paper argitaratu gabeen artean aurkitu ziren, besteak beste, 1877an osatu zuen bilduma interesgarri bat, «Refranes y proverbios», 1911.ean *Euskalerrriaren Alde* aldizkariak argitaratuko zuena. Nonbait, El Cid Campeador bakarrik ez zen

hil da gero ere batallak irabazi zituena. Kulturazko batalletan behintzat, kontuan hartzekoa dugu Manterolaren lana. Bere heriotza min sendagaitza izan bazen ere, RIEV, Eusko Ikaskuntza, eta beste zenbait ekin-tzaren bide idekitzaile izan zen eta neurri batean Euskaltzaindiak ere bere parte zor dio.

Holakoa izan zen hain gezterik galdu genuenaren emaitza eta eragina. Bere abertzaletasun sendoa eta euskaltzaletasun paregabea *Post tenebras spero lucem* delako poema nagusian naro agertu zuen eta on zaigu bere barnean jarri zuen zortzikoaren bi bertso hauek erakusten diguna berritzea:

*Bizi bedi Euskera,  
Izkuntz maitatsua,  
Zeruan Jaunak berak  
Guretzat sortua;  
Euskaldunentzat doai  
Guztiz eztiatsua,  
Izkuntz denen artean  
Paregabekua.*

*Bizi bedi Euskera,  
Beti Euskal-Errian;  
Jarri dezagun izkuntz  
Guztien gañian;  
Gorde dezagun garbi  
Dénok ill artian,  
Euskaldunak gerala  
Aztu ez gaitian.*

## BILDUMA LABURRA

José Manterola

### AURKEZPENA

Ongi da Jose Manterolaren lanak eskuratzea hain erraza ez den garai hontan, muestratzat bederen, antologiatxo bat agertzea, euskaraz zein gazteleraz bere zuzendaritzapeko aldizkarian maizenik bete zituen sailen adierazgarri eta era berean bere idea eta idazkerak erakutsiko dituen.

Euskarazko testuan ortografia gaurkotu eta tokiko fonetismoak ken besterik dugu egingo. H letrarik ez diogu jarriko, poesia neurketan nahasterik ez sortzeko eta Gipuzkoako beterriar hizkera dagoenean ahalik jatorren uzteko.

«Gizon bearra...» aintzinako Diojenezek salatu zuena da eta Manterolarenak, «bearra» ez, behartsua esan nahi du. Hala ere uz dezagun dagoen eran, kontaearen hariak esan nahiaren zentzubidera laster erango gaituanez. Hori izango da bilduma hontan hizlaxozko muestra.

Bere idazkiok erromantikoak dira, Jose Manterola ere bere garaiko seme zenez, egungo egunerako aski aspergarria, eta horregatik ez dugu hautatu bere poesietatik lanik handiena: *Post tenebras spero lucem*, latinezko izenburuz mila lerrotik (erdaraz «verso» esan ohi dena) gorako euskal poema, Euskal Herria gorai patuz egina, *Euskal-Erria* aldizkariaren X eta XI. (1884-1885) zenbakietan zatika argitaratua. Elkarrengandik desberdinak diren poesia laburrak hautatu ditugu eta bere erromantikotasunean badira neoklasikoan alegi gisara egiten ziren haietakoen kutsuzkoak. Beste batzuk ordea, jostakorrak. Horregatik sartzen zituen «Sección amena» sail hartan. Horietakoak dira, adibidez, Somaketa eta Itanasia.

Grafologia kontua ez da gauza berria eta «Nuestros autógrafos» sailarekin gure idazle ospetsuen grafiak agertu zituen, bakoitzaren eskutik harakoa zuzenki ezautarazteko. Honako hautatuak dituzu, irakurle, Axular, Pouvreau, Oihenart eta Ercilla. Gainera, era berean, bakoitzak burutu zituen lan nagusien berri ematen du, zabalkunde gisa.

«Curiosidades bascongadas» sailarekin, Manterolak, bere zuzendaritzapeko aldizkariaren irakurlearekiko harremanak eduki nahi zituen, Euskal Herriko semeak zerbaitera suspertzeko, kulturaz kezkatu eta gure herri honen alde bultzarazteko. Hala ere, gaurko abertzale ezjakin

askorentzat gauza bitxia izaki «bascongado» hitza. Ezen, maiz mesprezki erabiltzen bai da, gazteleraz euskaldun jatorrak izendatzeko hitz hau. Eta, euskara indartzeko «bascongado»-en beharra dugu, nahitaez. Horren argitasunik eman nuen 1983ko *Egan* literatur aldizkariaren 197. orrialdean. Gauza bera nik baino zehaztasun geiagorekin eman zuen Mitxelena berriki RIEV-en (Tomo XXIX, 1984, 15-19. orr.).

Sail hortatik bi zati hautatu ditugu, lehena euskal hiztegiari buruzkoa eta bigarrena antzerkirako hiztegiño bereziaren premia adiarazten duena. Bietan erakusten digu euskal kulturaz zuen erudizio sakona. Hiztegi orokorrez ari den «Curiosidades bascongadas» delako lehen artikulua horri bertan gehitu dizkiogu argibidezko zenbait ohar, aipatzen dituenetarik batzuk geroztik argitaratuak izan direnez eta beste batzuk non aurkitzen diren adieraziz. P. Novia de Salcedo-ren *Diccionario etimológico del idioma bascongado* bi tomotan argitaratu zen 1887. urtean. Aipatzen dituenen artean baliorik gutienekoa seguruaski, zeren gaurko linguistikaren argira ez bai du zientifikotasunik.

Ez dugu esan beharrik Jose Manterola bere idealetan zintzo jokatzeko zuten gizona zela, gizon zuzena, eta ikustekoak dira teatrorako beharrezko iduritzen zitzaizkion hitzak nola agertzen dituen elkarrizketaren bidez. Era berean, lanaren hasieran eta bukaeran, garai hartan euskal antzerkiari buruz zekizkien berriak ematen ditu. Zuberoako pastoralak, beren berri izanarren, ez zituen ikusten hain ongi. Baina kontu izan Hérelle-ren estudioak baino lehenagoko eritziak direla. Geroagokorik, antza denez, XVIII. mendekoekin huts egin zuten. Ondotik etorri bai ziren Joakin Azpiakuz eman zituen berriak, Donezteren 1923an *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak* haietan emandakoaren ezagutzarik ez bai zuten. Baina, J. Variot-en *Théâtre de tradition populaire*-an emandako albisteekin bat dator esaten duenari: «verdad es también que los pocos teatros que existen en el país bascongado, son todos ellos de fecha muy reciente, sin que el más antiguo cuente medio siglo de existencia». Horiek izango ziren Elémir Bourges-ek Lapurdin XIX. mendean hondarrean ezagutu zituen haietakoak. Berak ezagutu zuten haietako batean oinarritu bai zen gero P. Lafittek euskarara itzuliko zuten *Gonzalve* zeritzana. Oroi Manterolaren adiskide mina zen Marzelino Soroak Lapurdin ikasitakotik sartu eta girotu zuela Donostian euskal antzerkia eta laguntzaile hurbila izan zuela gure Manterola.

«Apuntes necrológicos» zuten hilberrien biografiak azaltzeko sail berezi batek izentzat, baina horietatik zerbait hautatzea baino hobeki iduritu zaigu Iparragirreri buruz idatzi zuten artikulua hartzea, era berean *Cancionero Basco*-ren hastapenetako berriak ematen dituan.

Azkenik, hilburukoa. Bere paper argitaragabeen artean bukatu utzi zuten «Refranes y proverbios vascos», egilea hil genetikoetara zuzentzeko *Euskalerraren alde* aldizkarian zatika agertuko zena. Utzi zituen oharrak adierazten dutenez 28 urte zituenerako bukatutzat zuten lan hau. Hil ondorean, horiez gainera, han-hemenka bildu zituen bertso

paper sorta, Bilintxen olerkiak eta abar Gregorio Mujikaren eskuetara pasa ziren. Honek, bere zuzendaritzapean ateratzen zuen *Euskalerriren alde*-n probetxu ona eman zion, eta gure egunotan, bertso-paperez, A. Zavala Auspoa Liburutegirako.

Garrantzizkoa iduritu zaigu gaur egun hain premiako zaizkigun erre-frau, atsotitz eta esaldiak era batean bildurik ematea Donostiako Udalak aukera hau eskaini digunez.

(J. S. M.)

# GIZON BEARRA TA ABERATS ZIKOTZA.<sup>1</sup>

## ERAKASDE ONA.<sup>2</sup>

Munduan beste asko bezala zan bein gizon bear bat.

Gaieza<sup>3</sup> lanerako, ez zuen beste oskairik<sup>4</sup> jan bear bazuen, anima onaren doankia<sup>5</sup> edo limosna besterik.

Gosetua oso ta beartasun aundian, ikusi zuen goiz batian pasatzen bere ondotik gizon bat, diruz josia<sup>6</sup> zegona, mundu guztiak esaten zuenez aoa betian.

Arrimatu zan beregana umill-umill, eta esanaz zeñen biarra zegon, eskatu zion Jainkoagatik egin zegiola limosnatxo baten mesedia.

Bañan gizon aberats purrukatu ura,<sup>7</sup> aberatsa baño zikotzagoa zan, eta aberats ta zikotza baño ere oraindik biotz-gogorragua.

Ikusi zuen beziñ agudo pobria, eranzun zion guziro modu txarrean, esanaz obe zukiala lan egin lotsagabekerian inñori ala eskatzen ibilli baño.

—Ez naiz gai lanerako, jauna, esan zion len baño umillago oraindik gizon bearrak, zer janik ez det, atzotikan mokadurik progatu gabe nago, eta orla biar badet izan, denbora gutxi barru gosiak ilko nau.

—Ill adi nai badek, ez dik munduak gauza aundirik galduko ire faltan,—eranzun zion ark modu txarrean.

—Biotz gogorra du, jauna, pobriarentzat, eta naiz berorrek ez uste, pobriak ere Jainkoaren semiak gera.

(1) *Zikotz-a*, tacaño, avariento.—(2) *Erakasde ona*, Ejemplo moral.—(3) *Gai-eza*, no útil o inútil.—(4) *Oskai-a*, remedio, recurso.—(5) *Doanki-a*, limosna.—(6) *Diruz josia*, literalmente, «cosido de (o en) dinero». Dícese de los hombres *cargados de dinero*, o muy ricos.—(7) *Aberats purrukatuba*, muy rico, o *rico en demasia*.



—Ua<sup>1</sup> ortik agudo, eta ez nakala pazienza progatu zergatik beste moduz ire bizkarrian ausiko diat eskuan daramatan makilla.

—Gaizki egiten du, jauna, iñor meatxatzea,<sup>2</sup> zenbat eta geiago ni bezelako pobre bat, iñoren gordozeririk<sup>3</sup> gabia.

Lana franko du pobriak bere beartasunian, iñoren mesprezarik<sup>4</sup> gabe ere...

Itz abek aotik ateratsetik etzuen akabatu oraindik, orra nun gizon aberats biotz gogor arrek altxatu zuen jotzeko eskuan zeraman makilla, eta pobria, jakiñik ez zuela arren kontra gauza onik aterako, itzik geiago egin gabe asi zan korrika argandik eskapoz.

Aberats zikotzak orduan, oso erria ta bere onetatik ateria pobriaren arrazoiagaz, artu zuen bidetik arri bat eta, errabian eta indar aundiarekin, iraitzi zion<sup>5</sup> pobriari.

Jaunak nonbait nai izan zuen arria erortzia pobriaren oñetara, oni ezer gaitzik egin gabe.

Pobriak orduban altxa zuen lurretik arria, triste baña keja bat gabetanik, sartu zuen kolkuan, eta bere bidean joan zan, zikotz gaizto arri ezer egin eta ezer esan gabe, bañan ziñegiñaz<sup>6</sup> ez zuela aztuko txarkeri itsusi ura.

## II.

Denbora puska bat pasa zan ordutikan.

Gizon bearra bearrian zan oraindik, eta estu ta pobre bizi zan doankiaren mesedez.

Aberats zikotza berriz, diru geiago ta geiago biltzeko bere afanian, edozein moduz zala, txarkeri aundi batian atxitua<sup>7</sup> izan zan, eta kartzelara eramana, nun pasa baizituen illabete batzuek errabiaz eta lotsaz akabatzen, kondenatua izan zan azkenerako justiziagandik plazaren erdian ogei ta amar makillazo artzera borruaren eskuz.<sup>8</sup>

Egun siñalatu ura allegatu zanian, goiz goizetik zeuden jendez betiak erriko karrika edo kale gure gizon aberats zikotzak pasa biar zituen guziak plazaraño juateko.

Nola ain gaizki tratatu izan baizituen denak bere andiustean, denak zioten bere doakabeen errukiaren<sup>9</sup> lekuan errabia.

(1) *Ua*, véte.—(2) *Meatxatu*, amenazar.—(3) *Gordozeri-a*, defensa, amparo.—(4) *Mespreza*, desprecio.—(5) *Iraitzi*, arrojar, echar.—(6) *Ziñegin*, jurar.—(7) *Atxitu*, coger. *Atxitua izan zan*, fue cogido.—(8) *Borrerua*, el verdugo. *Borreruaren eskuz*, de manos del verdugo.—(9) *Erruki-a*, compasión.

Noizbait bada allegatu zan bere ordua, eta gizon zikotz ura, Jainkoagaz eta bere suertiaz ernegatzen, atera zuten kalera, erropaz ariñ, eta lotsa aundiagorako asto itsusi baten gañian, eramanaz alde batetik borrerua erabakiari<sup>1</sup> kunplimentu eman biar ziona, eta bestetik pregoilaria,<sup>2</sup> kale ixkiña guztietan irakurtzen<sup>3</sup> zuela deadarka<sup>4</sup> arren txarkeria eta justiziak emandako erabakia.

Jende pilla guzti arren tartean zegon gizon bear, noizbait aberats zikotzak dakigun bezin txarki artu zuena.

Ikusi zuen bezela onek allegatzen ondora, mutill txikiren oju<sup>5</sup> eta bur-lazko deadarren, eta aundien irriaren artean, gizon biotz gogor ura, ateriaz beti berekiñ gordetzen zuen arria, altxatu zuen eskui-eskua,<sup>6</sup> intenzio txarrez beterik bota zion aberats zikotz-arri biurtutzeko.<sup>7</sup>

Bañan istanti artan, Jaunak nonbait ikutu zion damutasunez biotza, eta lotsaturikan intenzio txar artaz, utzi zuen erortzen lur santura eskuko arria, eta bere aotik ez zan atera ez eraso<sup>8</sup> bat, ez irain bat.<sup>9</sup>

Gizon bearrak barkatu zion zikotz ari egin zion gaitza Jainkuak agintzen digun bezela, eta kontatzen<sup>10</sup> dute esan zuela onela beretzat:

«Argandik mendekatzia,<sup>11</sup> zanian aberatsa ta fuertia, izango zan erokeri aundia nere aldetik; mendekatzia gaur, denen burla danean, diru eta onra gabe dagonian, eta len lausengatzen zutenak berak txistu egiten diotenian arpegira, umildua ikusirik, egiteko itsusi ta lotsagarria litzake.

Jainkuak barka dizaola nik barkatzen diotan bezela bere txarkeria».

*Aur ta gizon etsaigoti ta mendekakorrak, euki zazute beti gogoan erakas-de eder au, eta besteratu edo imita zazute gizon bearraren ejemploa zuen etsaiakin. Ala agintzen digu gure Jaungoikoaren lege santuak.*

(1) *Erabakia*, decisión, sentencia.—(2) *Pregoilari-a*, el pregonero.—(3) *Irakurri, irakurtzen*, leer.—(4) *Deadarka*, a gritos, en voz alta.—(5) *Oju*, grito.—(6) *Eskui-eskua*, la mano derecha.—(7) *Biurtu*, volver, restituir.—(8) *Eraso-a*, insulto.—(9) *Irain-a*, injuria.—(10) *Kontadu*, contar, referir.—(11) *Mendekatu*, vengarse.

## CLASICOS GRIEGOS.

### ABARASKA OSTUTZALLEA.

(Traducción al bascuence guipuzcoano  
del Idilio XVIII de Teocrito).

Bein batian, erle aidur pilla batek aur  
Amorea ziztatu zuen, ostutzen ari zala  
erletxetik abaraska bat, eta eskuko  
biatz punta guziak zulatuta utzi zizkan.

Eta Amorea, miña sentitu zuen bezela,  
aizemanaz bere biatz puntai, saltoka asi  
zan, lurra oñeztatzen zuela, eta, erli-  
gatik gaizki esanaz, Ama Benus-i, bere  
oñazea agertu zion modu onetan:—No-  
la, Ama, erliak, orren arbiska txikia  
izanik, onelako miñ aundia eman  
lezake?

Eta Benus-ek, parrez-parrez, erantzun  
zion: ¿Zú ere, erliaren gisa, txikia zerá,  
eta alabainanere, ez dituzu zauri ga-  
lantak egiten?

1882

## ITANASIA.

Kabi batean  
Bost txori txiki,  
Berua emanaz.  
Danak alkarri,  
Zeuden gaisoak  
Kiskur ta geldi,  
Bil-bill egiñik,  
¡Zeñen polliki!  
Biotz gogordun  
Eiztari batek,  
Ikusirik an  
Txoritxo aiek,  
Istanpatean,  
Erruki gabe,  
Artu gabe ere  
Penik batere,  
Tiro batekin  
Iltzitzen bi.  
Irakurlea,  
Maite nerea,  
Nai nuke orain  
Zuk asmatzea,  
Laster ta prestu  
Ta bat batetan,  
Zenbat txoritxo  
Ziran gelditu  
Esan dizudan  
Kabitxo artan.

Kabian zeuden  
bost txoritxuak  
aitu bezela,  
oso izutuak,  
eiztari gogor  
aren pausuak,  
kontuban jarri  
ziran gaisuak,  
asmatu nairik  
aren asmuak.  
Ikusirikan  
zuela altxatu  
bere eskopeta  
ta ara zuzendu,  
tira baño len,  
bostetik iru,  
laster ta larri  
ziran egatu.  
Tiroak bada  
antxen atxitu  
zituen eta  
illik lajatu,  
ez bost txoritxo,  
ez lau ta ez iru,  
baizikan bai bi,  
ezin mugitu  
ta ziradenak  
bertan gelditu.

## SOMAKETA.

1

Abecean *bata*,  
*Irua* musikan,  
*Bia* ta *lenengoa*  
Txit maiz tximinian.  
Nere *bata* ta *laua*  
Daukazu eskuan,  
Neurri txit ezaguna  
Lengo denboretan.

3

*Bat-bi*, *bat-bi*, esan zion  
atzo semeari  
ama batek; *bat-bi*,  
aker aundiari;  
¿ez al dek aitzen, Pello?  
alago *bi-irua*?  
zintzotukoat azkar  
kaikutzar lotua:  
Eta nola ama ura,  
izanik andrea,  
zan oso *bat-irua*,

5

Nere *bata* bi bider  
daukat nik izentzat;  
nere *bia* ta *bata*  
da nere lagun bat.  
Nere *irua* ta *bia*  
da ogi ordekoa,  
baserritarrak maiztxo  
duen jatekoa.

2

*Bata*, *bia* ta *laua*  
Bizartu adarduna  
Nere *irua* ta *lauan*  
Pozik ibilli oi da,  
Eta nere *guzia*  
Da sorgin kontua,  
Euskaldun itz garbia  
Erderak ostua.

4

itzuli semea  
presaka ta korrika  
irten zan kalea.  
.....  
.....  
¿Ez aldakizu oraindik,  
nere irakurlea,  
zer dan somaket onen  
*guzia* edo *dena*?  
Da, bada...¿esango al dizut?...  
*Ill baten izena*.

6

Lanian nekatuta  
eiten da ondo *bia*,  
gauza txit bearra ta  
osasungarria:  
eta gauz borobiltxo  
bat da nere *dana*,  
aidian ego gabe  
maiz ibiltzen *dana*.

## AITA SEBASTIAN MENDIBURU-KOARI

### BERE ERIOTZAREN LENBIZIKO EUNTEAN

Zure izen ona gaur berritzen da Euskal-Errian  
Koroi galantaz agerturíkan gure aurrían,  
Ta euskaldun léial guztiak dáude gaur zoratúrik  
Zure birtúte eta doaiak ezagutúrik.  
Danak diote txit zeradéla prestu ta azkárta,  
Zure lanákin goitu dezúla euskera zárta,  
Milla itz-edérrez gozó ta extíro apainduríkan  
Eta libúru óso bikáíñez ornituríkan.  
Euskaldun óna, kristau fiñ eta fedez betéa,  
Izdun edérta, izkribalari berdiñ-gabéa,  
Zure seméak gaurko egunéan zaituzte agurtzen  
Ta erramu lórez zure burúa dute koroitzen.

Mundura danak ekartzen degu lege gogorra,  
Eriotzari ordain zenion zuk zere zorra;  
Zure animá Zeru alaira joantzan berríro  
Bere Egillea ikusi náirik aurkéz garbiro,  
Baña emen bean gelditu zaigu zure oroipena  
Eta eriotzak indarrrik ez du iltzeko aomena.  
Eunki bat joan da, ez dio ajolik! gerore aurrera  
Euskera bizi dedíñ artean biziko zera,  
Izanik beti izar galant ta didizaria  
Nai dutenéntzat ikasi gure izkunz eztia,  
Aíñ aberatsa, aíñ otseztia eta gozóa  
Dirudiela Zeruan bertan sortutakóa.

Ikus ditzazu, O Mendiburu! zure semeak  
Oiartzun artan nóla dabilzan pozez beteak  
Zeru goiraño jaso nairíkan gaur zure izena,  
Mundu guzian zabaldu naiaz zure aomena;  
Ikusi zazu zure lur maite Euskal-Erria,  
Biotz-biotzean penak izanik, festaz jantzia  
Zure eunteko mugaldi auxe otseztitzeko  
Eta merezia dezún fama zuri emateko.  
Biur zazkizu, báda, begiak gure artera,  
Lagun gaitzazu jira gaítean lege zarrera,  
Sendoturíkan bearra degun gure fedean  
Ta euskaldun denak elkarganako naitasunean.

1882

## NUESTROS AUTOGRAFOS.

Entre los más antiguos escritores de la Euskal-erria aparece en primera línea el nombre de D. Pedro de Axular, natural de Urdax, en la Nabarra española, rector ó cura párroco de la pequeña villa francesa de Sara durante largos años, y autor de la famosa obra *Gueroco gueró*, impresa en Burdeos en 1643, y una de las mas apreciadas de los bascófilos y los eruditos.

Axular, que ha merecido el dictado de *Plutarco bascongado*, es considerado con justicia como uno de los escritores más notables, por el desarrollo que la lengua euskara adquiere en su pluma para tratar tanto las materias religiosas y filosóficas como las eruditas, las sentenciosas y hasta las poéticas.

Los facsímiles de tres de sus firmas que damos á conocer hoy á nuestros lectores están tomados de los libros parroquiales de la villa de Sara, de cuya iglesia fué rector durante largos años, y en la que fueron enterrados sus restos mortales.

En una de sus excursiones lingüísticas por el pais basco, el ilustre Príncipe Luis Luciano Bonaparte, gran admirador de Axular, hizo grabar en su tumba, sobre una losa de mármol, el siguiente epitafio, mucho más expresivo en nuestro idioma de lo que aparece en la traducción literal castellana de que lo acompañamos:

### PEDRO AXULAR,

EUSKALDUN EZKRIBITZALLETATIK IZTUN EDERRENARI,  
NI L. L. BONAPARTE EUSKARAZALEAK AU IPIÑI NION.

*Ez dago atsedetik  
Ta odei gabe egunik  
Zeruetan baizik.*

**1865.**

### A PEDRO AXULAR,

EL MEJOR HABLISTA DE ENTRE LOS ESCRITORES EUSKAROS,  
YO EL BASCOFILO L. L. BONAPARTE PUSE ESTA INSCRIPCION.

*No hay descanso  
Ni dia sin nubes  
Fuera del Cielo.*

**1865.**

Las tres firmas de Axular, que debemos á la amabilidad de nuestro distinguido colaborador, D. Julien Vinson, y que reproducimos fielmente por las variantes que ofrecen, pertenecen á otros tantos documentos, suscritos respectivamente con las fechas Enero de 1611, y Diciembre de 1614 y 1621.

\*\*

El autógrafo que aparece señalado con el número 31 es del conocido sacerdote labortano Silvain Pouvreau, autor de diversas obras en lengua euskara, y consiste en un corto fragmento de su *Diccionario basco-francés*, que en un tomo, fólío menor de escritura del siglo XVII, se conserva inédito en la Biblioteca imperial de Paris, bajo la anotacion 7.700, 3, 4 de la seccion de manuscritos.

Silvain Pouvreau, originario, segun los datos al parecer más exactos, de los alrededores de San Juan de Luz, escribió, además de este Diccionario que fué anotado y ampliado en 1665 por Oihenart, una *Doctrina Cristiana*, version de la del Cardenal Duque de Richelieu, publicada por vez primera en Paris en 1656, una traduccion de la *Philotea* de San Francisco de Sales, impresa en Paris en 1664, otra del *Combate espiritual* de Lorenzo de Scupoli (Paris, 1665), otra de la *Imitacion de Jesu-Cristo*, y algunos trabajos más que aun permanecen inéditos; y su lenguaje, si bien no es tan elegante y selecto como el de Axular, es, en cambio de esto, mucho más fácil y sencillo.

Su autógrafo lo debemos asimismo á la diligencia del Sr. Vinson, y lleva la fecha de 16 de Octubre de 1663.

\*\*

El facsímile que aparece sin firma, señalado con el número 32, es del historiador, poeta y filólogo suletino Arnauld Oihenart, y está tomado de sus anotaciones al Diccionario basco-francés de Silvain Pouvreau, y suscrito con la fecha 30 de Mayo de 1665.

Oihenart nació en Mauleon, capital en otro tiempo de la provincia bascongada de Soule, y murió en su pueblo natal en 1675. Investigador incansable de las antigüedades del pais euskaro, publicó en Paris en 1638 su obra principal titulada: *Noticia utriusque Vasconia tum Iberica tum Aquitanica*, dándose á conocer más tarde con una colección de poesías en lengua euskara, que se imprimió en Paris en 1657, por varios folletos históricos, y últimamente por su colección de *Proverbios bascos*, obra tan útil como verdaderamente meritória.

\*\*

Por último, el facsímile señalado con el numero 33, es el de la firma del insigne guerrero y poeta bizcaino D. Alonso de Ercilla, famoso autor del poema *La Araucama*.



El facsímile que damos á conocer lo debemos á la amabilidad de uno de nuestros colaboradores, y es reproduccion exacta de la firma que aparece al pié de uno de los documentos que se conservan en el archivo de Simancas.

**1881**

Páginas autógrafas.

30. Facsímiles de tres firmas del insigne escritor euskaro  
Pedro de Axular.

*P. de Axular Maestro*

*Pedro de Axular  
Maestro*

*Pedro de Axular  
Maestro por donde se eclipsa*

31. Autógrafo del escritor bascongado  
Silvain Pouvreau.

*Alorhia. O. mignon*

*Auguna. O. potulu, graffer. tendre.*

*Auxquerua. i. lerand. mufquerua.*

*Le 16<sup>o</sup> 8<sup>o</sup> 1663. Pouvreau*

32. Autógrafo del insigne escritor euskaro  
Arnauld de Oihenart.

Bon Envoye a Monsieur Bonneau  
Debloqui ou Doblanguis, qui signifie  
resolument ou Impetueusement  
l'Envy mes particuliers qui se voit du  
costé de l'aire d'asturij & aux Enuiron  
a moy ailleurs

33. Facsímile de la firma del insigne bizcaino  
Alonso de Ercilla.



Don Alonso  
de Ercilla

## CURIOSIDADES BASCONGADAS.

Uno de nuestros apreciables amigos de Bilbao se ha servido favorecernos con las siguientes preguntas:

PREGUNTA 1.<sup>a</sup>—«En el libro titulado *Claros varones de Guipúzcoa que han pertenecido á la Compañía de Jesús*, en la biografía del ilustre bascófilo P. Manuel de Larramendi, se habla de la existencia de dos Diccionarios bascongados, que debieron ver la luz pública, á juzgar por la excepcion que se hace respecto á otros dos compuestos por Aizquibel y D. Pedro Novia de Salcedo. Ahora bien: ¿Tiene usted noticia de la impresion de dichos Diccionarios, uno obra de D. Juan Echeberria, y otro de la Real Academia Bascongada, al decir del libro á que me refiero?».

PREGUNTA 2.<sup>a</sup>—«¿Qué noticias tiene V. acerca de otro Diccionario del mismo P. Larramendi, que, segun he leído, se conserva manuscrito en la Academia de la Historia?».

PREGUNTA 3.<sup>a</sup>—«¿Ha visto V. el Diccionario aleman-bascongado que dejó compuesto el ilustre Humboldt, y que debe formar el tomo 4.<sup>o</sup> de la famosa obra llamada *El Mitridates de Adelung*? ¿Sabe V. si existen todavia ejemplares en librería, y dónde podrán adquirirse?».

Contestaré con gusto, en cuanto esté de mi parte, á las anteriores preguntas, guardando el mismo orden en que han sido formuladas.

*Respuesta á la 1.<sup>a</sup> pregunta.*—Del texto citado de la obra *Claros varones de Guipúzcoa*, (pág. 274), que ha dado origen á este interrogatorio, parece deducirse, en efecto, que han sido impresos dos diccionarios, compuesto uno por D. Juan de Echeberria, y otro por la real Academia bascongada, y creo que hay equivocacion en ello, ó cuando menos, que el párrafo en cuestion no ha sido escrito con la debida claridad, duda que podria muy bien aclarar alguno de los autores de dicha obra biográfica, que afortunadamente deben residir hoy en territorio bascongado.

